

ESKOLA PUBLIKOAREN IBILBIDEA ETA ETORKIZUNA

Fermín Barceló

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN III. JARDUNALDIAK 2015

Etorkizuna eraikiz
Donostia. Apirilak 23

Bi gai jorratzea, bereziki, eskatu didate antolatzaileek:

- 1) Azken 40-45 urte hauetan eskola publikoak izan duen bilakaera (eta une garrantzitsuenak).
- 2) Eskola publikoa sendotzeko (sistemaren ardatza izateko) eman beharreko urratsak.

Iraganera begira, beraz, bata, eta etorkizunera begira bestea.

Eta gai horiekin hasi baino lehen, bi-hiru aitorpen, gutxienez:

- 1) Lehenengo gaian ziurrago sentitzen naiz, inondik ere, nahiz eta “une garrantzitsu” horietan zalantzak izan.
- 2) Bigarren gaian, ordea, nire zalantzak areagotu baino ez dira egiten. Beharrezkoak ikusten ditudan zenbait urrats aurreratzeko gauza sentitzen naiz, baina, nahikoa izango dira horiek lortu nahi dena lortzeko? Edo, horiek izango al dira garrantzitsuenak eta ez beste batzuk?
- 3) Bai batean eta bai bestean aritzeko, lotsa puntu bat ere sentitzen dut nire baitan, azkeneko urteetan eskoletatik kanpo aritu bainaiz.
- 4) Ekarpen posibleen artean, nik aukeraketa bat egin dut: azalpen simple bat egin, ez oso luzea, eta ez oso akademikoa. Ez dakit zenbateraino asmatu dudana.

1. AZKEN 40-45 URTETAN EGINDAKO IBILBIDEA.

Zergatik 40 urte? Edo zergatik 45 urte? Hori delako gure ibilbide profesionalaren luzapena, ziur aski, hori delako gure perspektiba. Nire kasuan behintzat horrela izan da hain justu, 1970ean hasi bainintzen maisu lanean. Baina luzeago ere jo daiteke nahi izanez gero: azkeneko 80 urteetara, esate baterako (1935ean estreinatu baizen maisu gure aita), edo ehun urteetara (1915ean Nafarroako eskola batean aritzen baizen nire aitite)... Eta horrela, ziur nago, laburrago edo luzeago, gutariko bakoitzak izango duela bere egutegi propioa, bere ibilbide propioa, bere “memoria” gordea.

Baina zergatik begiratu atzera? Komeni al da? Beharrezko al da? Bada bai, ziur aski. Zergatik? Bada, atzetik gatozelako. Zorionez *edo* zoritxarrez, gure gaur egungo eskola aurreko eskoletatik dator, haren semea edo alaba da, han ditu bere sustraiak. Zorionez *eta* zoritxarrez. Baina ez da hori arrazoi bakarra. Noizbehinka, zein bide egin dugun begiratzea, neurtzea, baloratzea, komenigarria izaten da, indarrak berritzeko gutxienez. “Joño, hori dena guk egin dugu bada!”. Begirada hori inoiz ez bada egiten, gainera, ahaztu egiten dira emandako pausoak, lortutako lorpenak, “normaltzat” hartzen dugu gure gaurko egoera, edo beti hutsetik abiatu behar dela iruditzen zaigu, eta hori ez da egia. Kontrakoa pentsatu, entzun edo esan arren, ez du inork inoiz hutsetik hasten.

Egin dezagun **ariketa simple bat** hasteko: har dezagun urte horiek (1970-1975) erreferentzia moduan, eta pentsa dezagun non geunden garai hartan, non zegoen bakoitza. Zer eskoletan. Nolako eskoletan. Nolakoak ziren garai hartako klaustroak edo zuzendariak, nolakoak ikasgelak eta ikasleak, nolakoak liburuak edo beste baliabideak, nolakoak ziren kopiak ateratzeko sistemak, zer notak erabiltzen ziren, zer irudiak egoten ziren arbelaren gainean, ea jantokia zegoen ala ez edo nortzuk geratzen ziren jantokira, zer nolakoa zen gurasoen partehartzea...

Zertan aldatu da eskola hura? Zenbateraino aldatu dira gauzak? Azalezkoak ala funtsezkoak? Onerako edo txarrerako aldatu dira?

Berehala aurreratuko dizuet nire iritzi orokorra: **zenbait arlotan**, eta urte horietan egindako ibilbidea nahiko gertutik ikusirik, **eskolak, aldatu baino gehiago, iraultza bat bizi izan du, iraulpena egin du**. Arlo askotan gainera, ez gutxitan, eta arlo potoloetan. Onerako edo txarrerako? Balantze orokor bat egin ez gero, onerako, nire iritiz.

Hala eta guzti, dena ez da aldatu..., edo ez da aldatu behar den beste..., edo ez da proportzio berdinean aldatu.

Jar ditzagun adibide batzuk, agian nabarmenenak edo adierazgarrienak:

- **Euskararen inguruan** eman den aldaketa, esate baterako, eta inongo zalantzarik gabe, iraultza bat izan da.

Duela 40 urte ez zegoen ia irakasle euskaldunik eskola publikoetan (% 5era ere ez ginen iristen; eta hori, maila benetan eskasa genuenak kontatuta); ez zegoen eskoletan euskarazko klaserik (edo ematen ziren gutxiak ezkutuan ematen ziren, klandestinoki, debekatua zegoen eta); ez zegoen, noski, B edo D edo dena delako eredurik (askoz beranduago asmatuko ziren). Eta abar.

Parekatu zertzelada txiki horiek oraingo egoerarekin, mesedez. Ez dauka zerikusirik. Eta ez Ataunen edo Lekeition, baizik eta leku guztietan. Euskara eskolako hizkuntza (eskolako hizkuntza nagusia) bihurtu da. Beste gauza bat da, ea gizartearen hizkuntza ere bihurtu den ala ez. Baina hori beste kontu bat da, hori ezin zaio eskolari leporatu.

Arlo zehatz honetan, aurrerapauso hauetan, agian, bai seinalatu daiteke “une” berezi bat: 1982ean onartua izan zen Euskararen Normalkuntzarako Legea, edo hortik abiatuta etorri diren arauak, ereduak, Irale programak, euskalduntze planak, eta abar.

Ondo asko dakizue zuek, prozesu horren partaideak izan baitzarete. Beste aldetik, begi bistan dagoen gauza da, ikusi nahi duenak ikusteko moduan, eta, beraz, ez dago luzatu beharrik. (Nahi duenak, ikus beza nire testua: “Un balance de la normalización lingüística en la enseñanza no universitaria”, *La normalización del uso del euskera*, Cuadernos de reflexiones sociales, 2. zk, 89-98 or., Fundación Fernando Buesa.)

- Euskararen ondoan, zera jarri nahiko nuke: ikaslegoan eman den aldaketa, **ikasleen dibertsitatean**, ikasleen dibertsitatearen onarpenean, hain zuzen.

Garai hartako gelak nahiko homogeenak ziren: denak mutilak edo denak neskak; denak edo ia denak bertakoak; denak, agian, maila sozial berekoak edo antzerakoak; arazo larririk gabekoak (horretarako zeuden eta ikastetxe edo gela “bereziak”)...

Nire lehenengo eskolan, esate baterako, nik 48 mutil nituen klasean, denak adin berdinekoak (hamar bat urte) eta denak Barakaldoko Labe Handiko

langileen semeak. Den-denak, salbuespenik gabe. Han ez zegoen ez neskarik, ez etorri berririk edota ikasle “atzeraturik”.

Gaurko gelek ez dute horrekin antza handirik: alde batetik, neska eta mutilak, batera; beste aldetik, hezkuntza premia bereziak dituztenak ere gela arruntetan, ordu gehienetan behintzat; eta azken urte hauetan, etorkinen ugaritasunak zeharo aldatu du panorama; gehitu egin du dibertsitatea. Biderkatu, esango nuke, kasu askotan.

Eztabaidatu daiteke, noski, ea benetako hezkidetzak edo koedukazioa lortu den, edo benetako integrazioa, edo benetako eskola inklusiboa, edo benetako multikulturalismoa... Nahi duzuen. Hitz potolo horietan, oraindik ere, aurrerapauso ugari eman beharko dira, ziur, baina egindako bidea ezin da ahaztu. Hemen ere, arlo honetan, nire iritziz, aldaketa baino gehiago iraultza bat egin da. Iraultza bat..., nahiko kostata. Eta hauxe ere, onerako, nire iritziz.

-Beste aldaketa handi bat **irakalesgoaren profiletan** eman da.

Duela 40 urte, orokorki hartuta, eskoletan aritzen ginenok maisu-maistra ginen, eta puntu. Gure geletako jaun eta jabe ginen, eta puntu. Bazegoen zuzendari bat edo idazkari bat, edo, agian, frantseseko irakasle bat, baina ez zuten eragin handirik eguneko martxan. Eta espezializazio mailak ez zuen parekorik gaurkoarekin.

Ez naiz zehaztasunetan sartuko, baina begiratu norberak bere ikastetxearen plantila eta, tutoreak aparte, zenbat diren eta zer funtzioak betetzeko.

Irakaslegoaz ari naiz, baina gauza bera ikus daiteke perspektiba zabaltzen badugu eta eskoletan aritzen diren pertsona guztiak kontutan hartzen baditugu: berritzegunekoak, gizarte zerbitzuetakoak, jantokikoak, begiraleak, laguntzaileak, terapeutak...

Objetiboki, inoiz baino baliabide pertsonal gehiago ditugu gure eskura, honek dituen bentaja eta zailtasunekin proiektu koherente bat bideratzeko orduan edo ahal diren etekin guztiak ateratzeko.

Salbuespena, neurri batean bederen, eskola txikiak dira, hauek ere gure-gureak eta ahaztu ezinekoak.

- Eta **berrikuntzan**, zer?

Berrikuntzan ere, nire ustez, pauso nabarmenak eman dira, garrantzi handikoak, baina ez dira izan, agian, hain zabalduak, hain orokorrak, hain iraunkorrak. Euskararen uholdea edo ikasleen ezberdintasuna edo irakasleen dibertsifikazioa, nola edo hala, ikastetxe guzietara heldu dira, salbuespenik gabe. Berrikuntza ere, berrikuntza metodologikoa nolabait esateko, apustu bat izan da eskola publikoan, baina, askotan, honetan bai eta beste horretan ez, edo gaur bai baina ez etzi. Kontutan hartu barik “berrikuntza” termino horren azpian oso errealitate desberdinak babesten direla, sailkatu eta galbahetik pasatu beharrekoak.

Hala ere, duela 40 urte han edo hemen, gela konkretu batean edo maila konkretu batean, perretxiko gozo bat aurkitzea posiblea bazen, gaur egun perretxikoak eskola askotan topa daitezke, onttoak edo Amanita caesareak ere barne.

Baina, perretxiko zaleek ondo asko dakitenez (edo dakizuenez), kontu handiz ibili behar da perretxikotan, hurrengo urteetan ere bertan topatu ahal izateko: lur azpitik doan mizelioa edo sustraia ebaki edo zapuztuz gero, akabo. Bada, perretxikoak bezala, eskoletan sortzen diren berrikuntzak ere mimatu egin behar dira etorkizunera begira. Mimatatu, baloratu, ezagutarazi, zabaldu...

- Aldaketak **azpiegituretan** (hemen ere, ziur aski, seinalatu daiteke “une” edo momentu bat nahiko nabarmena, aspaldikoa bada ere: Villar Palasí legearen ostean, egindako hainbat eta hainbat eskola eta institutu berri).

- Aldaketak **curriculumean** (azpimarratuz euskal gaiak curriculumean lortu duten presentzia, batez ere).

- Aldaketak **laguntza zerbitzuetan**.

Edo aldaketak baino gehiago, duela 40 urte existitzen ez zirelako. Gero, Talde multiprofesionalak, Aholku eta baliabidegiak (ABT-CAR), Pedagogia orientabideak (PO-COP), Berritzeguneak, Berritzegune nagusiak...

-Aldaketak **eskolaratze** kopuruan (“kantitatean”).

Duela 40-45 urte, normalena zera zen: 5-6 urtez hasi eskolara, eta 14 urtez amaitu. Kito. Orain normalena 2-3 urtez hasia izaten da (edo arinago), eta 16-17-18 urtez amaitu. Derrigorrezko hezkuntzan bederen, eta ia salbuespenik gabe. 16-17 urte horietara heldu ondoren ere, normalena

(zabalduena, ohikoena) ikasten jarraitzea izaten da, lanbide heziketan, batxilergoan edo dena delakoan.

Zenbat ordutan gehitu da, bada, tarte honetan, “eskolaratze kopurua” deitu dezakeguna?: % 100ean, zenbait kasutan; %80an gutxienez, gehienetan. Igoera honek eragina izan behar du, ezta? Eskolan zortzi mila ordu “egotea” edo hamabost mila ordu “egotea” ezin da berdin izan.

- Aldaketak **ratioetan** (beraz, ikasle konkretu bakoitzari dedikatu diezaiokegun atentzio kopuruan).

- Aldaketak **partehartze sistemetan, irakasleen autoritatean, familia eta eskolen arteko harremanetan**, distantzian, ikuspuntutan...

Nahi izanez gero, jarraitu dezakegu bide honetatik luze, zerrenda hori luzatzen edo osatzen (**testuliburuetan, tresna teknologikoetan, zuzendaritzetan, irakasleek egiten genituen ikastaroetan eta abar**).

Hala ere, nik aurreko gaiak azpimarratuko nituzke, beraiek izan direlako, nire ustez, eragin handikoak, gaurko eskola goitik behera aldatu dutenak.

Hemen, agian, ohar pare bat egitea komeni zait:

- Agian konturatu zarete ez dudala ia aipatu “**une**” **berezirik**. Hasieran, Euskararen Normalkuntzarako Legea, eta amaiera aldera, Villar Palasí lege zaharra (LOMCE, LOGSE, LODE eta LGE legeen aurrekoa, beraz). Beste munarri edo prozesu bi behintzat aipatu beharko nituzke, agian: Hezkuntza transferentziak (1980 inguruan), eta Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993ean onartua izan zena), eta horren ildoan bultzatutako eskola eta ikastolen arteko konfluentzia. Eta bide horretatik jarraituz gero, nire esperientzian oinarrituz, aipatuko nituzke baita ere, ziur aski, Irale programaren hasiera, edo Irakasleen prestakuntzarako programak (PIF, Iraprest...), edo ez dakit zer berrikuntza proiektuen laguntza deialdia...

Baina zergatik aipatu horiek eta ez besteak? Bada, ziur aski, horrelako ahaleginetan guztiz sartuta ibili nintzelako. *Espejismoa* izateko arrisku handia dago, beraz.

Eta beste aldetik, “une konkretuetan” edo “momentu historikoetan” gero eta sinismen gutxiago dut. Hezkuntza munduan, behintzat, benetako aurrerapenak, balio dutenak, mantenduko direnak, pausoz pauso egiten dira, prozesu luzeetan, ez goizetik arratsaldera, ezta ere “por decreto”.

- Agian konturatu zarete, baita ere, aditzarekin problemak izan ditudala orain arte. Aditz forma pasiboa erabili izan dut behin baino gehiagotan, baina forma aktiboak beharko ziren ia kasu guztietan. Eskolan *ez da eman* aldaketa bat, aldaketa hori ez da zerutik edo Lakuatik etorri ; *eskolak, berak egin du* aldaketa, berak lortu ditu hobekuntzak, berak eman ditu beharrekoak izan diren aurrerapausoak..., batzutan lagunduta eta beste batzutan haizearen edo beste elementuen kontra. Zuek, eta zuen aurrekoek, lortu duzue lortu dena. Eta zuek eta zuen ondorengoek lortuko duzue ere, lortuko dena. Ez okertu.

- Eta hirugarren ohar bat, beharbada zalantzaren bat gainditu ezinik zabiltzatenontzat. “Bale; ados; jo dezagun aldaketa horiek —edo nahi baduzu, iraultza horiek— eman, eman direla. Baina ez eskola publikoan, baizik eta hezkuntza sistema osoan...”. Bada, agian bai. Baina eskola publikoa, azken 40 urte hauetan, punta-puntakoa izan da beti garrantzia handiko gaietan: ikasleen integrazioan, esate baterako, edo erdaldunen euskalduntze prozesuan, edo hezkuntza berrikuntzan. Punta-puntakoa. Gehiago esango nuke: aldaketa handienak bertan egin dira; ahalegin edo esfortzu gehien egin duena bera izan da. Badakit gauza horiek neurtzea ez dela erreza, baina aspaldiko abiapuntu hura hartzen badugu erreferentzia moduan eta gaurko egoerarekin parekatzen badiogu, nik neuk behintzat ez dut zalantza handirik.

* * *

Goazen orain txanponaren beste aldea erakustera.

Hasieran esan dudanez, nire iritziz, zenbait gauzatan aldaketa ikaragarriak eman badira ere eskola publikoan, beste batzutan apenas eman dira aldaketak, edo ez dira nahikoak izan. Zertan, adibidez?

Barru-barruko hausnarketa eginez gero, ziur nago makina bat gauza aurkituko genituzkeela **aldatu beharrekoak, edo gutxiegi aldatutakoak**: ebaluazio sistemak, esate baterako; letra idatziak oraindik ere eguneroko martxan kasu askotan duen pisua; neska-mutilen (batez ere, nerabeen) partehartzea gelaren eta ikastetxearen dinamikan; ikastetxearen autonomia maila (edo, beste moduan esanda, Administrazioaren loturan); talde pedagogikoen jarraipena; zuzendaritzaren profesionaltasuna; gurasoen benetako partehartzea...

Bide honetatik ere luze jarraitu daiteke, baina ez dut nahi. Horren orde, nahikoa labainkorra eta guztiz funtsezkoa iruditzen zaidan puntu batean

zentratuko naiz: **gizartearen ikuspegian**, gizartearen (gizartearen sektore batzuen) balorazioan, gizarteak eskolarekiko duen atxikimenduan.

Esan dezagun argi eta garbi: nahiz eta aipatutako aldaketa guzti horiek eta beste asko egiazkoak izan, oraindik ere, euskal gizartearen zati batek ez du eskola publikoa “beretzat” hartzen; arrotza, eskasa edo pobreegia izango balitz bezala begiratzen dio. Edo zenbait jendek eskola onartu onartzen du, teorikoki behintzat, baina ez bere seme alabentzat baizik eta besteentzat. Gaurko benetako eskolak ezagutu barik askotan, aspaldiko aurreiritziei edo oraingo mamu eta beldurrei amore emanez.

Arazo honetan (arazoa da eta, nire ustez) faktore askok dute eragina, baina nik gutxi batzuk baino ez ditut aipatuko, bai “kanpokoak”, bai “barrukoak”. Kanpokoaren artean, esate baterako, botereek, alderdiek, komunikabideek, gizarte eragileek... askotan erakusten dituzten jokaerak, esate baterako. Edo gure kontra jokatzeko duten interesak (ezin baita ahaztu gurean beste sareek duten pisua eta interesak; hau ez da Finlandia).

Irudi faltsu horiek finkatzeko edo mantentzeko, denak balio du: telebistan ematen ari den serie bat, marrazki bizidunen itzulpenak, oso zabalduak egoten diren balorazioak edo konparaketak...; literatura ere bai zenbait kasutan.

Ikuspegi ezkor horri indarra emateko, hala ere, denak ez dira kanpoko faktoreak. Guk ere, zoritxarrez, badugu gure errua. Adibidez: nork sinistuko du eskola publikoan guk geuk sinisten ez badugu? Edo konplejoarekin jokatzeko badugu edozein eztabaidan? Edo gure seme-alabak beste ikastetxeetara bidaltzen baditugu?

Ramón y Cajal jakintsuak esaten zuenez: “Fray ejemplo es el mejor predicador”.

...

2. EMAN BEHARREKO URRATSAK

“Etorkizuna eraikiz”. *“Euskal Eskola publikoa, sistemaren ardatza”*. Horra hor III. Jardunaldi hauen leloak. Eta aurkezpenean bertan, bi lerroalde hauek:

“Orain arte egindakoa asko izan bada ere, etorkizun hurbilak aurrez aurre ezarri dizkigu erronka berriak: konpetentzien garapena, ikaskuntzaren

digitalizazioa, eleaniztasuna, irakasle belaunaldi berri baten sartzea sisteman...

“Erronka berri guzti hauei erantzuteko eskola publikoak egin behar duen trantsizio prozesua argitzea ezinbestekoa da, arazoak eta urratsak aurre egiteko eta ondo planifikatzeko. Zentzu honetan, aurtengo jardunaldiek emango digute lehenengo gogoeta bat egiteko.”

Bada, horixe, gehien jota ere, “gogoeta bat” baino ez da izango nirea. Balio gutxiko ekarpena, nire ustez.

Lehenengo eta behin, komentario minimo bat espreski aipatutako **erronka** horiei buruz: **konpetentzien garapena; ikaskuntzaren digitalizazioa; eleaniztasuna; irakasle berrien egokitzapena...** Ez dakik, egia esateko, zenbateraino diren erronka “*berriak*”, baina argi dago, erronkak badirela. Horretaz ez daukat duda izpirik.

Eta ez dira erronka *berriak*, nire ustez, aspalditik ikusten edo sumatzen zirelako..., gero eta gertuago, gero eta premiazoago... Baina, orokorki hartuta, hezkuntza sistema sistema pakidermikoa da, motela, lentoegia, erreflexu gutxikoa, bide bat hartu duenean aldatzea piloa kostatzen zaion horietarikoa. Nork ez zuen ikusten, aspalditik gainera, sistema eleanitza behar beharrezkoa zela, eta hasiera hasieratik, lehenengo mailetatik? Nork ez du ikusten informazio (eta baita desinformazio) laino batean bizi garela aspalditik, edo gure ikasleak behintzat laino horretan bizi direla, irakurketa zailtasunekin? Nork ez daki irakasleak (hau ere orokorki hartuta, noski) ez gaudela prestatuak konpetentzien arabera antolatzeke gure irakaskuntza guztia. Gure praktikak, gure baliabideak, gure tresnak eta trebeziak edukien gainean, edukien inguruan gauzatu dira, neurri handi batean..., eta oraindik ere, zoritxarrez, kanpoko zenbait bultzatzaileek bide horretan indarra egiten jarraitzen dute.

Bai, horiek dira erronka berriak. Eta baita beste asko ere.

Matrikula garaian edozein aldizkari edo egunkaritan agertzen diren iragarkiak irakurtzea baino ez da behar zer “saltzen” den konturatzeko: heziketa eskaintza luzea eta jarraitua (Otik hasi eta 18urtera ahal bada), kalitatezko heziketa hirueleduna, ez dakit zenbat Q edo zenbat ISO lortu duena, primerako instalakuntzak eta baliabideak, eskolaz kanpoko ekintza ugari, talde konprometituak...

Alde horretatik, **gure ahuleziak** zeintzuk diren jakin behar dugu eta, ahal den neurrian, saihestu. Horretaz aritu nintzen duela hamazortzi urte,

Zarautzen, Sarean jaio zenean, oker ez banago. Eskola publiko gehienok **arazo amankomun batzuk** baititugu: autonomia gutxiegi zenbait esparrutan, Administrazioaren dependentzia; presioa egiteko indar gutxi; proiektu potoloak edo oso berritzaileak aurrera ateratzeko baliabide mugatuegiak; proiektu horiek denbora luzean mantentzeko zailtasun objektiboak; ikastetxeen arteko konpetentzia; ikasle kopuruan ematen diren gorabeherak; ikasleen banaketan ematen den inekitatea (ekitate eza); konpetitibitatea...

Egunen batean, ziur aski, nahitaezkoa izango da egutegiaren edo ordutegiaren asuntua planteatzea, edo maila ezberdinetako ikastetxeen artean proiektu jarraituak bermatzeko sistemak, esate baterako, beste ikastetxe batzuen parean izateko bada ere. Baina, zer tresna ditugu horretarako? Zer indar? Zer baliabide?

Gure adina aurrera doala ikusirik, bestalde, errelebo kontua ere prestatu beharko da, ezta?, katea apurtu ez dadin. Nola, ordea?

Hezkuntza arloan behintzat ez dago, nire ustez, milagrorik. Eskola, azken finean, gizartearen tresna bat baino ez da, gizarteak momentu historiko bakoitzean dituen (edo sentitzen dituen) beharrei erantzuteko tresna bat, hain zuzen. Behar horiei erantzun egokia emateko gai bada, ondo. Bestela, akabo. Horrela neurtu beharko litzateke kalitatea, eta ez beste modutan. Hezkuntza ona eskaini: hori izan behar du eskolaren betebeharra. **Hezkuntza hobea** (ez hezkuntza gehiago; edo bai, agian) **eta guztientzat** (ez gutxi batzuentzat). Posiblea den hezkuntza onena; ahal den hezkuntzarik onena. Horrela izan da beti, eta horrela izaten jarraituko du. Aldatu egingo dira premiak, noski, baina ez helburu nagusia.

Hala eta guzti, gaurko eskola publikoan, edo etorkizuneko eskola publikoan nahi baduzue, lan ona egitea ez da nahikoa izango behar duen arrakasta lortzeko. Kontraesan bat ematen du, baina ez dut uste hala denik. Ea esplikatzen naizen.

“Beharrak” esan dut, “**gizartearen beharrak**”. Baina, nork markatzen ditu zeintzuk diren behar horiek? Eta behar kontrajarriak ematen direnean? Edo, gizarte sektore batek behar batzuk sentitzen (edo inposatzen) dituenen, eta beste sektoreak beste batzuk? Hau ez da burutazio bat, hau egunero ematen ari da (“es el pan nuestro de cada día”, esan ohi denez). Eta are gehiago gizarte konplexuetan. Hortik doa gure gizarte, ez dago dudarik, gero eta konplexuagoa izatera, alegia.

Irtenbide errazena, agian, zera izan daiteke: guk (eskola konkretu honetan) gure inguruko jendearen beharrei erantzungo diegu (gure “bezeroei” esango genuke, hitz itsusi hori erabiltzen), eta besteak besteei. Hor konpon. Baina gauzak ez dira hain sinpleak. Ondorioak oso kaltegarriak izango lirateke. Edo dagoeneko badira, neurri batean. Sektore ahulenetan espezializatzea tokatzen zaionarentzat, batez ere.

Gaur egun eta eskolaren etorkizunera begira, **sistema ekitatibo bat lortzea hil edo bizikoa da**, nire iritziz: “Que exista una igualdad de oportunidades en el acceso a la educación; que quienes más necesiten, más recursos y atención reciban; que la educación pueda superar, o al menos reducir, las desigualdades sociales de partida...” idatzi nuen aspaldian.

Horrela al da? Horrela da, esate baterako, *ghetto* bihurtu edo bihurtzen ari diren eskoletan? Zergatik pilatzen dira gure erkidegoko 80 ikastetxetan premia gehien dituzten ikasleak? Zergatik dira ikastetxe horietan lortzen diren emaitzak, ikastetxe guztien batez besteko datuekin konparatuz, 20 eta 40 puntu baxuagoak? Baliabide banaketan hartzen al dira kontuan hain ezberdinak diren egoera horiek? Egunero bost ordu izatea edo sei ordu izatea berdina al da, eta hori urte eta urtetan, eskolaratze prozesu osoan? Zergatik ikastetxe batzuetan ezin da ikusi hezkuntza premia larriak dituen, edo atzeritik etorri berri den, edo ijitoa den edo diru gutxi duen bat ere ez? Edo zergatik beste ikastetxe batzuetan ikasle horiek baino ez dira ikusten? Ebaluatzen da, benetan, gure sistemaren ekitatea? Badago borondaterik edo tresnarik ikastetxe bakoitzak bere ikasleei ematen dien “balio erantsia” dei dezakegun hori neurtzeko? Horretarako bi datu behar dira eta ez soilik lortutako emaitzak; abiapuntuak, hasierako mailak ere ezagutu behar dira.

Horizontean ikusten diren arriskuak edo zailtasunak gainditu nahi baditugu, **urrats** batzuk ematea derrigorrezkoa dirudi. Printzipalena, esan dudanez, gizarteak dituen behar berriei erantzun egokia eskaintzea. Baina hortik aparte (edo horretarako) eta **adibide batzuk** emateagatik, baita beste batzuk ere:

- **Zuzendari taldeak** ondo prestatu, indartu, babestu.
- **Baliabideen banaketan** erabiltzen diren irizpideak berrikusi.
- **Autonomia gehiago** lortu.
- **Eskola irekiagoak** egin (ordutegietan, lokaletan, ekintzetan...)
- **Partehartze** sistemak indartu (ikasleen partehartzea eta gurasoen partehartzea, bereziki).
- Gure “**produktua saldu**” (hitz itsusiak berriro).
- Ahal diren gizarte sektore guztiak **erakarri**.
- **Eta abar**.

Baina urrats horiek edo beste edozein emateko, badago, nire ustez, **oinarrizko baldintza bat**. Edo bi, nahi baduzue. Eta apropos utzi ditut horiek amaitzeko: 1) sinismena alde batetik (edo konpromisoa, beste moduan esanda), eta 2) **indar batuketa**.

Eskola eta familien arteko **elkarlana**, irakasleen eta gurasoen elkarlana, eskola eta udalaren hurbiltasuna, eskolen arteko elkarlana... Hitz batean esanda: *SAREAN*.

Sareak, meheagoak edo lodiagoak, ez badira josten, jai dugu.
Eta jostunak beste batzuk izango direla espero badugu, jai dugu.

Eskola publikoaren alde guk egiten ez duguna (edo zuek egiten ez duzuen, hobeto esanda), ez du inork egingo.

Fermin Barceló.
2015-04-23